



▲ Hibaí Garai marrazkilari oñatiarra arduratu da komikiaren arlo grafikoaz

Hies Ekimenak *Soo Bitxo* izeneko komikia argitaratu du. José Ignacio Telleriak idatzitako gidoi bat du abiapuntu, eta Hibaí Garai 17 urteko oñatiarra arduratu da arlo grafikoaz. Tunantes del Norte antzerki taldeak hainbat aldiz jokatu du istorio horretan bertan oinarritutako antzezlanak.



mikel lizarraide

«Nik ez dut helbiderik, ezta moralik ere, berdin dit mari-koi batek zein kardinal batek... ez ditut bereizten homosexualak eta heterosexualak, ez ditut bereizten heroina eta ostia sakratuak!! Bizirautea baino ez dut helburu». Hies jaunaren hitzak dira, birusa hedatu duen *bitxoaren* berbak. Ez dira bakarrak, ordea: «Ez zarete gai elkar errespetatzeko () eta horrek errege bihurtu nau!! Modan nago, puri-purian!». Zalantzarik gabek, *Soo Bitxo*-ko protagonistetako batek oso argi du zein den egoera, hiesaren atzean zer dagoen eta zer eragiten duen. *Soo Bitxo*-ren atzean, berriz, bi lagun daude; Jose Ignacio Telleria, Telle, Hies Ekimenako kide eta istorioaren sortzailea batetik, eta Hibaí Garai Oñatiko marrazkilari gaztea bestetik.

Hibaik 17 urte besterik ez du, eta txikitatik marrazkilarikoa zaletasuna erakutsi badu ere, orain arte batez ere ma-

rrazki solteak egin izan ditu. «Fanzineetan argitaratu izan ditut, eta gehienez bi orriko lanak izan dira, kontakizun laburrak», adierazi digu Hibaik. Marrazkiez eta komikiez gain, grafitiak ere egiten ditu, eta Oñatiko gaztelekuan halako bat egiten ari zenean

Marrazkiez gain grafitiak ere egiten ditu Hibaik

ere in zen, hain zuzen ere, *Soo Bitxo*-ren hazia. Tellek ikusi eta berehala bota zion gidoia komiki bihurtzeko ideia.

Komikiaren istorioak Charles Dickens *Gabon ipuina* dakarkigu burura: hiesaren birusa azaltzen zaio, *bitxo*; eta hark, gizarteko sektore batzuen jokabidea erakutsi nahian, hiru lagun aurkeztuko dizkio: eskrupulurik

gabeko negoziatzaile bat, burges hipokrita bat eta drogazaleak zein homosexualak ezabatu nahi dituen Elizaren ordezkari bat. Pertsonaiak antzezlanetan ere azaltzen direnez, haietan oinarritu da Hibaí marrazkiak egiteko orduan. Hiesaren birusa marrazteko, ordea, erabateko askatasuna izan du: «*Bitxo*-ak aukera eman dit neure erara definitzeko eta gozatu ederra hartu dut».

*Bitxo*a beldurgarria da alde batetik, baina, bestetik, badu zinismo edo ironia puntu handi bat ere. «Pikaro bat da; beldurra ematen du, baina ironia ere erabiltzen du», diosku Hibaik.

Marrazkiak ilunak dira, beldurgarriak hein handi batean, eta xehetasun txikiz gainezka daude. Hori ei da haren estiloa: «Nik hala marrazten dut, hori da nire ezaugarria, eta Telleri ere gustatu zitzaionez, bada, aurrera». Komikiaren gaia edo istorioa zoriontsua edo alaia izango balitz ere antzeko

ezaugarrietako marrazkiak egingo lituzkeela aitortu digu.

Irakurri, ordea, denetarik irakurtzen du Hibaik, eta estiloei dagokienez ez du bat bestea baino nahiago. «Grumb, Moebius... asko gustatzen zaizkit, baina errealistek ere inbidia ematen didate. Niretzat, hala ere, zailagoa da marrazki errealistak egitea».

Batxilergo ikasketak egiten ari da Hibaí, eta, marrazten segitzeko asmoa izan arren,

ez du ikasketak mundu horretara bideratzeko intentziorik. Izan ere, oñatiarrak oso argi du komikiak ez duela saltzen: «Honetaz bizitzea oso-oso zaila da. Polita izango litzateke eta gustatuko litzaidake, baina horretarako saldu egin behar duzu eta hori oso zaila da».

Komikiak egiten segituko du, ordea, eta Hies Ekimenarekin lan gehiago ere egingo dituela esan digu.

